

Zibermobilizazioen jarraipen handia eta **IKTn GREBA**ren lehen jardunaldian **ERABATEKO ARRAKASTA**



Sektorean **JARDUNALDI HISTORIKO** bat bizi izan dugu. Atzokoa izan da aholkularitzan gauzatzen den lehenengo greba, eta ezin gara atseginago egon. **ERABATEKO JARRAIPEN-ARRAKASTA, ZORIONAK!** Hau da zuen meritua.

Bestalde, zibermobilizazioak benetako buruko mina izan dira AEErentzat (Aholkularitza Enpresen Elkarte), sektoreko patronalarentzat eta honen bazkideentzat. Izan ere, ikusi dute beraien Sare Sozialetan **MILAKA** aipamen, jakinarazpen eta galdera, zalantzan jartzen omen zutenak kontziliazioaren, osasunaren edo bizi-kalitatearen aldetik ondorio ekonomikoen neurriak, hitzarmenerako proposamenek eraginda.

Horri esker, aholkularitza-enpresa handien bezeroek eta AEEri atxikitutakoak frogatu ahal izan dute, segurtasun osoz, zein diren beren zerbitzuak ematen dituzten enpresen planteamenduak, eta hortaz, enpresa horiek zein eragin zuzena izan dezaketen ematen zaien kalitatean (nekearen ondoriozko errendimendu-jaitsierak, baja medikuen areagotzea, langileen errotazio itzela baldintza duinen bila...).

Espero dezagun AEEK gure lan-baldintzen aurrean nazkaturik gaudela ikusteak, beren jarrera aldatu eta sektorearen errealitatearekin bat datorren hitzarmena eskaintzearen alde egin dezaten. Hala ez bada, hauxe hasiera besterik ez da izango, eta berokiak prest izango ditugu udazken osoa kaleetan pasatzeko, behar izanez gero.

ORAIN ENTZUNGO GAITUZTE

Gogoratu praktika hauek atzera egiteko eta ekiditzeko zure laguntza behar dugula, "Change.org" eskaera sinatuta hurrengo helbidean: <https://bit.ly/NOPrecaryTIC>, apuntatzen al zara?

Eta ez ahaztu sare sozialetan ahalik eta gehien hedatzea #ConvenioTICdigna #NoPrecaryTIC

CCOO DA ZURE SINDIKATUA ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO. [AFILIATU ZAITEZ!](#)